



Sariaren oinarriak

- 1. Antolatzailea.** MUTUALIA, 2. Gizarte Segurantzaren Laguntzailea den mutualitatea, gizartea lan-arriskuen prebentzioaren kulturen sensibilizatzeko helburuz.
- 2. Parte-hartzaileak.** 18 urtetik gorako pertsonak, zaletuek zein profesionalek, hartu ahal izango dute parte lehiaketan, salbu eta epaimahaikideek, haien senitarteko hurbilek eta MUTUALIAko langileek. Lehiaketan parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- 3. Modalitatea.** Laneko arriskuen prebentzioari buruzko argazki-lehiaketa.
- 4. Sariak.** Dirutan, honako hauek izango dira (*):
 - Lehenengo saria argazkigintzan: 2.000 €
 - Bigarren saria argazkigintzan: 1.000 €

** Indarrean dagoen zergei buruzko legerian aurreikusitako atxikipean aplikatuko zaizkio sari guztien zenbatekoari. Zerga-betebeharrak betetzeko, sariaren zenbatekoaren eta dagozkion atxikipean ziurtagiria emango da.*

- 5. Aurkezten diren materialen gaia.** Lan Arriskuen Prebentzioa izango da, eta estatuko errealitateari begiratuko dio soilik. Honako hauek baloratuko dira: inpaktu bisuala, sormena, gaiarekiko egokitasuna eta lan-istripuak eta lan-gaixotasunak saihestera bideratutako mezuak ematea, bai eta enpresa osasungarria bultzatzea ere; praktika egokiak balioetsiko dira.
- 6. Argazkien ezaugarriak eta haiek bidaltzea.** Argazkiek originalak, errealistak eta parte-hartzaileak eginak izan beharko dute. Ezin izango dira aurkeztu aldeztu aurretik argitaratutako edota beste lehiaketaren batean saritutako argazkiak. Argazkiek ezingo dute hirugarrenen eskubiderik izan.
 - Digitalki editatutako argazkiak onartuko dira, baita ukitutakoak eta Adimen Artifizialeko (AA) tresnen bidez sortutakoak ere, baldin eta argazkiek lehiaketaren gaiari eta estatuko egungo errealitateari erantzuten badiote. Erregistro-formularioan esplizituki adierazi beharko da obra partzialki edo osorik AA bidez sortu dela. Adierazpen hori egin ezean, deskalifikatu egingo da argazkia.
 - Koloretan eta zuri-beltzean egin ahalko dira.
 - JPG formatu digitalean bidaliko dira.
 - 6 megapixe leko bereizmena izan beharko dute gutxienez.
 - JPG fitxategiaren tamaina ez da 10 MB baino handiagoa izango.

Argazkiak **prebentziozkobegiradak@mutualia.eus** helbide elektronikoaren bidez helaraziko zaizkio MUTUALIAri, eta honela identifikatuko dira: ABIZENA_IZENA_ARGAZKIAREN IZENBURUA.

Argazki-artxibo bakoitzeko, erregistro-inprimaki bat bete eta bidaliko da, MUTUALIaren webgunean (**www.mutualia.eus**) egongo dena eskuragarri.

- 7. Aurkezteko epea.** 2026ko martxoaren 15ean amaituko da.
- 8. Epaimahaia.** Honako hauek baloratuko ditu epaimahaiak: inpaktu bisuala, sormena, gaiarekiko egokitasuna eta lan-arriskuen prebentzioaren arloko mezuak transmititzeko gaitasuna.

Epaimahaia honako 4 pertsona hauez osatua egongo da:

 - MUTUALIAko zuzendaritzaren ordezkari bat.
 - MUTUALIAko prebentzioko aholkularitzako ordezkari bat.
 - Laneko arriskuen prebentzioaren arloan prestigio handikoak diren erakundeetako bi pertsona (Laneko Ikuskaritza eta Gizarte Segurantza, OSALAN...).

Epaimahaiak lehiaketatik baztertuko ditu pribatutasuna urratzen duten edo pertsonen duintasuna edo haien datuen babesa errespetatzen ez duten materialak, bai eta pertsonen edo pertsona-taldearen estereotipo kaltegarriak irudikatzen dituztenak ere, eta jazarpenarako, identitatea ordeztzeko edo lege kanpoko edozein jarduerarako erabil daitezkeenak ere bai. Era berean, baztertu egingo dira praktika ez-seguruak edo istripu larriak modu sentsazionalistan edo hezkuntza-testuingururik gabe irudikatzen dituztenak.
- 9. Epaimahaiaren erabakia** behin betikoa eta apelaezina izango da, eta, 2026ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Munduko Eguna ospatzearekin batera, MUTUALIaren webgunean (**www.mutualia.eus**) eta sare sozialetan argitaratuko da.

Epaimahaiak hala erabakiz gero, sariak eman gabe gera daitezke.
- 10. Jabetza intelektual eta datuen babesa.** Lehiaketako parte-hartzaileek onartzen dute egile-eskubideen legezko titularrak direla edo ustiapen-eskubideak dituztela lehiaketara aurkeztutako obretako irudien, testuen eta Jabetza Intelektualaren Legeak babestutako beste edozein lanaren gainean. Halaber, onartzen dute ez dagoela aurkeztutako lanaren gaineko kargarik edo mugarik, eta, horregatik, inolako erantzukizunetatik salbuesten dute MUTUALIA.

Parte-hartzaileen ardura izango da parte hartzeko eta oinarri hauetan xedatutakoa betetzeko behar diren baimenak lortzea, indarrean dagoen legediak eskatzen dituenean, honako hauen tratamendua egiteko, adibidez: identifikatutako edo identifikagarriak diren pertsonak erakusten dituzten irudiak, hirugarrenen jabetza diren irudiak, datu-pertsonalak edota espazio babestuak edo erreserbatuak. Baimen informatua eman behar dute erabiltzen diren irudien jabeek, bai eta AA bidezko irudiak sortzeko erabiltzen diren jabeek ere. Hori aplikagarri zaio bai benetako pertsonen irudiak bai benetako pertsonen antza duten pertsonen irudiak sortzeari. Parte-hartzailea da lehiaketara aurkeztutako lanaren arduraduna, baita AAren tresnen erabileraren arduraduna ere, eta horri lotutako edozein erantzukizunetatik libratzen du MUTUALIA.

Era berean, parte-hartzaileek lehiaketaren oinarrietan ezarritako baldintza guzti-guztiak onartzen dituzte, eta berariaz onartzen dute lehiaketara aurkeztutako argazkiak, irudiak eta bideoak MUTUALIAk erabili ahal izatea lehiaketa sustatzeko, bai eta MUTUALIAk Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan —Gizarte Segurantzaren kudeaketan irabazi-asmorik gabeko erakunde laguntzailea delako— dagozkion jardueretarako ere. Halaber, askatasun osoa ematen diote haiek erreproduitzeko edo hedatzeko, edozein formatutan, euskarritan, hedapen-lekutan (erakunde ofizialak eta espazio publiko eta pribatuak barne), lurralde-, denbora- eta espazio-mugarik gabe. Horrez gain, era guztietako komunikazio-kanalak erabiltzeko baimena ematen dute, telematikoa barne.

MUTUALIAk, bere aldetik, parte-hartzaileen eskubide guztiak errespetatzera behartzen du bere burua; hau da, beren obren jabe intelektual bakarrak haiek direla bermatzen du. Beraz, MUTUALIAk ez du inoiz eskatuko inolako eskusibotasunik, jabetzarik edo erabilerarik, aurrez adierazitakoa izan ezik, soil-soilik.

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko argazki-lehiaketan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen dute beren agerraldi publikoak filmatu eta/edo edozein hedabide telematikotan eman daitezen, bai eta, ondoren, MUTUALIaren eta lehiaketaren erakunde kolaboratzaileen webgune korporatiboetan eta hedabideetan argitara daitezen ere. Horrenbestez, beren irudia filmatzeko eta tratatzeko eta datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen dute.

Azkenik, lehiaketako parte-hartzaileek berariaz baimena ematen dute beren datu pertsonalak MUTUALIaren fitxategi batean sartzeko eta agiri honetan adierazitako helburuetarako tratatu eta helburu horien arabera argitara daitezen (egilea identifikatzeko, parte-hartzaileen eta irabazleen zerrenda osatzeko eta antzeko trataerak egiteko, besteak beste). Sinatzaileak datu horiek atzitzeko, ezeztatzeko, ezeztatzeko eta aurkarazteko eskubideak baliatu ahal izango ditu MUTUALIAko Segurtasuneko arduradunari helbide honetara gutun bat bidalita: **Henao kalea 26, 48009 Bilbo**.

- 11. Oinarriak onartzea.** Adierazitako baldintzak betetzen ez dituen argazkirik ez da onartuko. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar. Oinarriotan aurreikusi gabeko edozein egoera antolatzaileek ebaztuko dute. Zalantzak argitzeko edo kontsultak egiteko, idatzi helbide elektroniko honetara: **prebentziozkobegiradak@mutualia.eus**